

**“TOKI ONA” Bigarren Hezkuntzako Institutua**

Eztegara Pasealekua, 34 – 31780 BERA  
948 625.000 Telefonoa / 948 625.032 Faxa  
Posta Elektronikoa: iesbera@educacion.navarra.es  
Web.Orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>  
CIF: S31993001



## **Emakumeek jasaten duten bortizkeriaren kontrako eguna dela eta gure ikastetxean antolatutako ekitaldiak.**

### **\* Ikasleriak proposatutakoa:**

Aste batzuk lehenago, Batxilergo eta Lanbide Heziketako 8 ikaslek, gai hori lantzeko proposamen bat aurkeztu zuten.

Proposamena hau zen: zortzi ikasle hauek, binaka, gela bakoitzean sartzea, eta emakumeen kontrako bortizkeriari buruzko hausnarketa batzuk egitea beraien ikaskideekin. Hau nola egingen zuten erakusteko, gidoi bat aurkeztu zuten (Zuzendaritza taldeak onartu zuena). Gidoia hau da:

- 1) Galderak eginez, eta modu interaktiboan gaiakin erlazionatutako konzeptu batzuei buruz hitz egin (genero-indarkeria, matxismoa, feminismoa, sexismoa, e.a.). Zer egin arazo hauen aurrean. Errespetua: neska batek “ez” erraten duenean, “ez” dela..
- 2) Gaiakin zerikusia zuten joko didaktiko eta antzeztuak
- 3) Laburmetraiak (“*El maltrato sutil*”; “*La bella y la bestia*”)

Ekitaldi hau, aurreko astean zehar egin zen, modu horretan egun zehatzean ikasleria konzientziatua egoteko.

### **\* Ikastetxeak antolatua:**

Bai ikasleriari eta baita langileriari, egun horretan more/lila koloreko zerbaite jantzia ekartzeko aipatu zitzairen. Horretaz gain, ikasleri talde batek lila koloreko lazoak egin zituen, eta irakasle bertze talde batek berriz, gantxilozko loretxo lilak.

Gizarte Zerbitzuakin batera, adierazpen idatzi bat prestatu zen, eta ikasle batek irakurri zuen egun horretan institutuko patioan egin zen konzentrazioan, non ikasleri eta langileri guztiak parte hartu zuen.

Ikasleen laguntzakin ere, institutuko kristalera eta lehioetan kartulinazko puntu lila erraldoi batzuk jarri ziren.